

Aterpetxe hau ala hori?

–Nik Soroa aterpetxea aztertu dut. Zuk?

–Nik Olarain.

–Soroak wifia dauka. Eta Olarainek?

–Bai, bai, honek ere bai, baina ez dauka aire giroturik, eta bero handia egingo du!

–Bada, Soroak ere ez; abanikoa eraman beharko dugu! Gainera, ez dago jatetxerik eta ez dute gosaririk ematen.

–Honetan ere ez: jatetxerik ez, eta gosaririk ere ez. Baina, tira, sukaldea dago.

–Honetan ere bai. Ondo: guk prestatuko dugu bazkaria, eta merkeago aterako zaigu.

–Soroan, non daude komunak: logelatik kanpo ala logela barruan? Olarainen logelatik kanpo daude.

–A, bada, Soroan komunak logela barruan daude, eta, gainera, baditu toallak!

–Bai, honek ere bai. Aizu, orain arte, oso antzekoak dira bi aterpetxeak, ezta? Beste zerbitzu batzuk aztertuko ditugu?

–Bai, hori egingo dugu!